# Aniztasunean Elkargunek

*material didaktikoa*

**Sorginlore Gizarte Elkartea**

SOR
GIN
LORE

# Aniztasunean Elkarguneak

## KAIXO

Zer moduz? Sorginlore gizarte elkarteak egindako ekimen txiki hau helarazi nahi dizuegu. Aniztasunean elkarguneak sortzeko.

## NOLA

Ekintza erraza da, behar duguna da: material gutxi, gogo asko eta konfiantzazko giro goxua sortu.

## GAKOAK

- Aurre- iritziak gainditu.
- Aniztasunaren aberastasuna eta aitortza
- Amankomunean ditugun emozioak, gustuak, ohiturak... topatu

## NORENTZAT

6 - 105 urte

## GUK EGIN DUGU ETA ZUK...

Aniztasunean elkarguneak bideoa youtuben

# Material didaktikoa

## HELBURUA

Aniztasunaren errealitatean elkarguneak topatu, bizikidetza sustatatzeko

## IRAUPENA

45 minutu

## PARTE HARTZAILEAK:

gutixienez 20
gehienez 75

## MATERIALA

Espazio irekia eta zabala
2 koloretako zinta itsasgarriak
Esaldiak hikuntza desberdinetan itzulita taldearen beharren arabera.
Taldea handia bada:
- Mikrofonoa
- Bozgorailua

## HASI BAINO LEHENAGO

Zinta itsasgarriarekin borobil handi bat egin, denak borobil gainean kokatzeko.
Beste koloreko zinta itsasgarriarekin borobilaren erdian izar bat egin, topagunea markatzeko.

# Hastera goaz... 1_Urratsak

## ONGI ETORRIA

## ZEINTZUK ELKARGU GARA

Adb: "Pertsona dezente elkartu gara gaur hemen, batzuk bakarka, batzuk taldean etorri gara. Agian ez dugu inoiz elkar ikusi, edo gurutzatu gara baina inoiz ez dugu elkar begiratu edo hitz egin. Batzuk Donostian bizi gara, beste batzuk ikastera, lanera edota aisialdian gatoz. Agian guneak eta ibilbideak partekatzen ditugu, baina ordutegi, lagun eta plan ezberdinekin."

## ZERTARAKO ELKARTU GARA

adb .." Ziurrenik oso ezberdinak garela uste dugu, baina agian amankomunean gauza asko ditugu. Elkargune horiek bilatuko ditugu. Eta hori egiten dugun bitartean ondo pasatzea espero dugu. Baliteke orain pizkat arraro sentitzea. Erlajatu eta, errespetuz, disfrutatu."

## NOLA EGINGO DUGU

adb.. "Marraren gainean jarriko gara. Guk esaldi batzuk irakurriko ditugu eta hor esaten denarekin bat datorrena erdigunera, *-ra, mugituko da. Esaldi bakoitza euskaraz eta gaztelaniaz irakurriko ugu.Esaldi bakoitzean mugimendu bera egingo dugu: aurrera erdigunera eta buelta marrara."

# 2_ Esaldiak

## NOLA

Esaldiak bota banan banan eta erdiko izarrera doaztenei, esaldiei buruzko galderak egin.
Asko badira erabili mikrofonoa denek entzuteko eta parte sentitzeko.

## ESALDI PROPOSAMENAK

- Etxean animalia bat izan dut, daukat edo eduki nahiko nuke
- Musika entzuteak dantza egiteko edo abesteko gogoak sortzen dizkit
- Nire gurasotako bat Donostiatik kanpo jaio da
- Damutzen zait xxx-ri maite nuela ez esatea
- Eskolan noizbait zigortu naute/ninduten
- Berde, ori, gorri eta urdin artean aukeratu beharko banu, berdea aukeratuko
- nuke
- Oso gustuko dut etxean sofan botata serie bat ikustea
- Etxera iristean egiten dudan lehenengo gauza zapatak kentzea da
- Egunero 7 ordu baino gehiago egiten dut lo
- Jainkoren baten sinisten dut
- Nahita edo nahi gabe, teknologia behar dut
- Itsasoa gutxienez astean behin ikusi behar dut
- Oraintxe txokolatezko zerbait jango nuke

## BESTE ESALDI BATZUK EGITEKO KONTUTAN IZAN...

- Egunerokotasuneko egoerak
- Gustuak
- Emozioak
- Ohiturak
- Gai pertsonalak
- ...

## GOGOETA

- Aurre iritziak eta ipinitako etiketak (estereotipoak) eta eragina.
- Ikuspegi eta begirada zabaldu, mugak ipini gabe.
- Aniztasuna, zer da, nola bizi dugu eta aniztasunaren balio irentsia.
- Bizikidetzako jarrerak eta baloreak: irekia, ez bortitza, inklusiboa, ez sexista, entzumen aktiboa , zintzotasuna, egiazaletasuna, errespetua, umorea, ...
- Bukatzeko taldea zoriondu eta azpimarratu landutako 2 edo 3 ideia nagusiekin.

# Mila esker,

edozein kezka
galdetu eta
kontatuko diguzue
ea zer moduz

SORGINLORE

info@sorginlore.eus
wwww.sorginlore.eus

BABESLEA

Gipuzkoako
Foru Aldundia